

AKTA 9

ACTA 9

2008K0 UZTAILAK 24

24 DE JULIO DE 2008

ORGANO: UDAL BATZARRA
ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIZKOA
SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008K0 UZTAILAK 24
DIA: 24 DE JULIO DE 2.008

HASIERA ORDUA: 19:00
HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.
PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK
CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lidé AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Cristina FORCADA UNANUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

EZ DIRENAK BERTARATU:
NO ASISTEN

Paloma HEREDERO NEGREDO

BEHIN BEHINGO IDAZKARIA: Lioba MAIZA RECONDO
SECRETARIA ACCTAL.

Alkate Jaunak bilera eratutzat
ematen du

Se da por constituída la sesión
por el Alcalde-Presidente

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (2008.05.29).

1.- APROBACION DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR, SI PROCEDE: (29.05.2008).

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ongi etorri gaur uztailak 24, ohizko plenoari hasiera emango dio, bueno lehenbizi denon dakizuen bezala, gaur idazkari funtzioak Lioba Maizak egingo dituela, eta eskerrikasko hemen egoteagatik,

Lehendabiziko puntu bezala, beti bezala, AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA, puntu honetan norbaitek zerbait esatekorik? M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, akta irakurtzerakoan konturatu naiz, gutxienez nire interbentzio batetan 17 eta 18. orri-alde artean dagoen horretan, ni neuk ez dudala tutik ere ulertu zer esan nahi ote duen eta gaur goizean Maite Ibarri deitu diot galdetuz, ea hori horrela esan zen eta horrela jaso den horregatik, edo transkripzioarekin arazo bat egon den, aitortu dit egon zela, sistemak nonbait ez zuen erabat ondo funtzionatu azkenengo pleno horretan, eta hor hain justu, eta ez hor bakarrik, beste zenbat lekutan ere berdintsu gertatu zaiola esan dit, puntu suspentsibo batzuk jarri zituen baina Mirenek horrela itxi omen zuen akta, hor dagoen bezala.

Orduan eskatuko nuke alde batetikan, saiatu gaitzela hemendikan aurrera sistema honek ondo funtzionatu dezan, eta bestela, gertatzen direnean

horrelako akatsak, gutxienez oharra jarri aktan ah, alegia ez dela horretan bukatu esandakoa baina ez dela ulertu zer esan den, edo kendu, ze.. dagoen bezala hori ba... ez dauka zentzurik,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hemendik aurrera, M. Eugeniak esan duen bezala ea saiatzen garen ahalik eta hobetuen egiten, hala eta guztiz ere denok jakinen gainean gaude kasualitatea pleno horretako problema tekniko batzuk egon zirela eta Maitek ehundoko arazoak eduki zituela aitzeko sistemak ez zuelako ondo funtzionatzen eta, jende askoren hitzak galdu egin ziren eta batzuren artean neria ere bai eta Maitek esan zidan behin, entzun ezazu eta zuk ulertzen dezun zer esaten dezun eta ez nintzen kapaz izan, baina bueno arrazoia dezu, hemendik aurrera horrelako zerbait gertatzen baldin bada igual jarri beharko da, ez da ondo ulertzen edo horrelako zerbait aktan, ez?

Gaur badakit konprobatzen ibili garelako, ibili zaretelako hobeto esan da beranduarde, ia sistemak funtzionatzen duela, ondo aitzen dela eta ondo grabatzen dela, eh Lioba?

IDAZKARIA: Bai, bai bai

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bestela esan, eta besterik gabe, bai barkatu Joseba, bai

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. Bueno nik daukat pare bat gauza, biak hirugarren orrian, nik grabazioak eta ez ditut entzun, pentsatzen det hori esango duela, baina bueno ez dakit, adibidez, bigarren parrafoan bukatzen du esaten “eta hor garrantzi handia izan du inbertsioen kapituluak 25, 2 izan delako” eta bueno ez dakit zer esan nuen baina 35 nahi nuen esan.

Eta gero azken aurreko parrafoan ez dakit egia esan da grabatzerakoan edo igual nik gaizki esango nituen gauzak edo grabazioarena den edo, nahi nuen esplikatuta udalaren egoera ekonomikoa eta hor irakurri det hori eta nahasmen bat dago, orduan egoera erreala ikusteko, hor daude gauza batzuk jarrita baina nahastuta eta hor esaten duenean 6 miloi horietatik inkorporatu zirela lau, gero lau horiek inkorporatu eta gero..

ALKATE-LEHENDAKARIA: Joseba, barkatu igual ez da ondo entzungo eta denak sartu arte itxoin egingo degu,

Bueno arratsaldeon etorri zareten denei, dagoeneko plenoa hasi berria gera, aktarekin ari gera, pozten naiz hemen ikustea eta hemen eztabaidatzen deguna herrian nondik norakoak gai askori buruz, gaur ez dauzkagu gai asko egia esan, beti pozgarria da pleno areto bat beteta ikustea, ez?

Beste gauza batzuren artean herrigintzan partaide ere zuek bazaretelako eta ikusten duzuelako hemen gaudenok herria nondik nora bideratu nahi degun eta bakoitzak zer eritzi daukan, ez?

Hau foro demokratiko bat da hemen gaude Zumaiako alderdi guztiak edo sentsibilitate guztiak ordezkaturata eta zentzu horretan aber bakarrik ez den izaten besteetan ere errepikatzen dezuen eta beste gai batzuren inguruan ere tratatzen degunean etortzen zareten ikusteko zerri buruz hitzegiten degun,

Josebak zeukan hitza, aktari buruz ari garelako hitzegiten eta Joseba jarraitu nahi baldin baduzu,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. Bueno bi gauza nahi nuen esan, bat inbertsioena ez dakit 25 esan nuen, baina bueno 35 izan zela, eta bestea azken aurreko parrafoan nahasmen bat sortzen dela eta orduan egoera ekonomikoa laburpen bat egiteko sei miloi haieztatik, remanentetik lau miloi inkorporatu zirela 2008ko aurrekontuetara eta gelditzen zirela bi miloi lauhun eta hamasei mila hor jartzen duen bezela, bostehun eta hogeitazortzi €, hori zela gelditzen zena eta gero 2008ko aurrekontuetan onartu zen defizita gutxi gora behera bi miloitakoa zela eta orduan geratuko litzateke hori kenduta lauhun mila € borobiltzen, zer hori nahi nuen esan, ze.. hor beste erabatera ulertzen da eta, hori zen dena,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Jasota geratzen dela pentsatzen det, Lioba ez? Ondo da.

Behin bilerako aktaren onarpenari inork ez baldin badio ezer gehitzeko, bigarren puntua,

MOZIOAK:

INMIGRAZIOAREN AURKAKO ITZULERA DIREKTIBA dela eta, eta bigarrenik ZUZENBIDEZKO ESTATUAREN DEFENTSAN, TORTURA INOIZ EZ, lemapean EAJ-PNV-k aurkeztu dituen bi mozioak letu nahi baldin badituzue edo defendatu, M. Eugenia.

UNAI MANZISIDOR ANDONEGI JNA. Inmigrazioarekin hasiko naiz:

Orain dela gutxi, Europar Batasuneko 27 estatuek Itzulera Direktiba onetsi dute. Horrek etorkinak kanporatzeko eta atxikitzekeo Batasun osorako irizpideak ezarri ditu. Direktiba hori gaitzesten dugula adierazten dugu, arrazista eta xenofobia delako, oinarrizko giza eskubideen aurka doalako eta haren bidez legez kanpoko gizonen azpikategoria sortu delako. Beraz, Zumaiako EAJ/PNVko udal taldeak osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko ondoko mozioa aurkezten du:

1. Zumaiako udalak Europako Legebiltzarrak asteazkenean, 2008ko ekainaren 18an, onetsitako Itzulera Direktibaren erabat aurka. dagoela adierazten du. Direktiba horren bidez, immigrazioari buruzko zenbait arau sortu dira, lana eta bizi izateko baldintza duinak lortu nahian (horietarako eskubidea ere izanik) herrialde garatuenean atea jotzen duen kolektibo bat zigortu eta kriminalizatzen dutenak.

Ante la reciente aprobación de la Directiva de Retorno contra la inmigración acordada por los 27 estados miembros de la UE, que establece criterios comunes para la expulsión y retención de inmigrantes, queremos mostrar nuestro rechazo por ser ésta una normativa racista y xenófoba, por atentar contra los derechos humanos fundamentales y por establecer la subcategoría de ser humano ilegal. Por ello, el grupo municipal de EAJ/PNV del Ayuntamiento de Zumaia, propone para su debate y aprobación al pleno de la corporación la siguiente MOCION:

1.- El Ayuntamiento de Zumaia muestra su más enérgica oposición a la Directiva de Retorno, aprobada por el Parlamento Europeo el miércoles, día 18 de Junio de 2008, en virtud de la cual se da luz verde a una nueva normativa en materia de inmigración que penaliza y criminaliza a un colectivo de personas, cuyo único delito es llamar a la puerta de los países más desarrollados en busca de empleo y unas condiciones de vida dignas, a las que también tienen derecho.

2. Zumaiako udalaren ustez, Itzulera Direktibak oinarrizko giza eskubideak larriki urratzen ditu, eskubide horiek Europar Batasuneko herrialde gehienek sinatutako nazioarteko itunetan agertzen direla. Bide horretatik joanda, Europar Batasunak iritzi eta jarduera arrazistenik eta xenofoboanik bere egiten ditu. Horiek sustatzen dituzte etorkizun hobea bat lortu nahian beren herrialdeak utzi besterik egin ez dutenak gaizkile bezala tratatu nahi dituztenak.

3. Zumaiako udalak euskal erakunde guztiei, talde politikoei eta herritar guztiei eskatzen die Itzulera Direktibari eusteari ezetz biribila eman diezaiotela, nor bere eskumenen eremuan eta bere aukeren neurrian, Euskadi arrazakeriarik eta xenofobiarik gabeko erkidegoa deklaratzu. Oinarrizko giza eskubideak murrizteak, Administrazioak hala erabakita, epaileen kontrolik gabe, oso aurrekari txarra jarriko du berdintasunerantz doan bidean, eta gizaki ahulagoak sortuko ditu, egoera irregularrean egoteagatik edozein abusu jasoko dituztenak.

2.- El Ayuntamiento de Zumaia entiende que la Directiva de Retorno constituye una vulneración grave de los derechos humanos fundamentales, recogidos en tratados internacionales, suscritos por la mayoría de los países de la Unión Europea; la Unión Europea se suma, por esta vía, a las corrientes de opinión y actuaciones más racistas y xenófobas, promovidas por quienes pretenden tratar como si fueran delincuentes a quienes no han cometido más delito que tener que abandonar sus países de origen con la aspiración de poder acceder a un futuro mejor.

3.- El Ayuntamiento de Zumaia solicita a todas las instituciones vascas, a las formaciones políticas y al conjunto de la ciudadanía que hagan pública, en su ámbito competencial y en el medida de sus posibilidades, su negativa más enérgica a secundar la Directiva de Retorno, declarando a Euskadi como Comunidad libre de la práctica del racismo y la xenofobia. La restricción de derechos humanos fundamentales, por decisión administrativa y sin ningún control judicial, sienta un precedente grave en el camino hacia la igualdad y crea una categoría de seres humanos aún más vulnerables, a quienes se puede someter a todo tipo de abusos por ser considerados irregulares.

4. Zumaiako udalak Europar Batasuneko herrialdeei eskatzen die Itzulera Direktibaren edukia berraztertzeke, horrek ahalbidetzen baitu paperik gabeko etorkinak 18 hilabetez atxikitzea, baita bakarrik dauden etorkin adingabeak kanporatu eta bost urtez itzultzea debekatzea ere. Izan ere, direktiba horren bidez askatasunak, giza eskubideak eta gizaki guztion berdintasuna (jatorriak eta iritzak edozein izanda) babesteko tradizio europarra hautsi da, eta hori orain arte ez da inoiz gertatu.

5. Zumaiako udalak Gobernu zentralari eskatzen dio Espainiako Estatuan Itzulera Direktiba ez onartzeko eta ez betetzeko. Gure ustez, Gobernu zentralak autonomia-erkidego guztiekin adostu behar du immigrazioari buruzko politika; eta gerra zibilaren eta diktaduraren ondorioz, edo arrazoi ekonomikoengatik, hirurogeiko hamarkadan, gutako askok emigratu behar izan genuenean erabilitako irizpide eta emandako tratu eta arreta berak eskaini behar zaizkio kolektibo horri.

4.- El Ayuntamiento de Zumaia insta a los países miembros de la Unión Europea a que reconsideren el contenido de la Directiva de Retorno, que posibilita la retención de inmigrantes sin papeles durante 18 meses, admite la expulsión de menores no acompañados y les prohíbe regresar en un plazo de cinco años, por entender que la misma da carta de naturaleza a una quiebra, sin precedentes, en la tradición europea de defensa de las libertades, los Derechos Humanos y la igualdad de todas las personas, vengamos de donde vengamos y pensemos como pensemos.

5.- El Ayuntamiento de Zumaia pide al Gobierno central que ni acepte ni ejecute el cumplimiento de la Directiva de Retorno en el ámbito del Estado español; consideramos que es una obligación del Ejecutivo central pactar la política de inmigración con el conjunto de las Comunidades Autónomas, aplicando a este colectivo los mismos criterios, el mismo trato y la misma consideración que recibimos muchas de nosotras y muchos de nosotros cuando nos vimos obligadas y obligados a emigrar por razones políticas, como consecuencia de la guerra civil y la dictadura, o bien, por razones económicas, en la década de los años sesenta.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrikasko, Unai, bateon batek zerbait esatekorik honeri, buruz, Emiliano

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: Aunque estamos de acuerdo en que lo que se ha aprobado en Europa no responde a la realidad por la voluntad sobre el tema de inmigración y yo creo que ni en España, ni en ningún sitio, pero lo cierto es que formamos parte de Europa y es lo que ha salido y nos guste o no nos guste, pues está ahí y debido a éso, pues por ejemplo pues hay algunos temas en los puntos que nos hace pues no posicionarnos a favor de esta moción, por citar alguno de ellos en cuanto al ayuntamiento de Zumaia, lo último, “pide al Gobierno central que ni acepte ni ejecute el cumplimiento de la Directiva de Retorno en el ámbito del Estado español” nos es imposible, en principio, formamos parte de Europa, la Directiva es de obligado cumplimiento y entonces no informaríamos a Europa, ni mucho menos, eso no es posible.

También dice que “pactar la política de inmigración con el conjunto de las Comunidades Autónomas” tampoco es posible, llevar a cabo eso, es una... digamos exclusivamente del Estado e incluso ya por encima de lo que es el Estado español está la Comunidad Europea que es la que marca las directrices en este tema y se hace imposible el cumplimiento de la misma, por eso se nos hace imposible votar a favor que con algunas modificaciones no hubiéramos tenido ningún tipo de problemas, porque somos los primeros en estar de acuerdo en lo que ha salido, tal y como ha salido en Europa, pero eso nos hace imposible porque sabemos de antemano que no podemos coger y por muy... no sé la palabra más adecuada en el sentido de lo que puede representar Zumaia puesto esto en circulación y en contra de esta directiva por muy poco que represente, digo, porque es un ayuntamiento más de los muchos que hay, pues nos hace imposible el poder asumir algo de lo que dice aquí, por lo tanto no vamos a votar a favor de la moción.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek, zerbait esateko, Aralar

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA: Guk bakarrik esan, Europar Batasunak onartu duen Itzulera Direktiba hau xenofobia eta arrazak iruditzen zaigula guri ere. Giza eskubideak oso larriki ukatzen dituen eta guztiz aurka gaudela, direktiba horren aurka eta aldeko botua emango dugula

ALKATE-LEHENDAKARIA: Beste norbaitek, zerbait, Ez.
Bozkatzera pasako gera, beraz, PNV-k

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa, PSOE-k ? Kontrako botoa, Ezker Batua-Aralarrek ? Aldeko botoa, ANV-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa eta Eusko Alkartasunak, ere Aldeko botoa.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (4 PNV; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)
Aurkako botoak: 1 (PSOE)
Abstentzioak: 0

ERABAKI DA:

EAJ-PNV-k aurkeztutako INMIGRAZIOAREN AURKAKO ITZULERA DIREKTIBAri buruzko MOZIOA onartzea, hitzez hitz azalpenen zatian jaso dena.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 (4 PNV; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)
Votos en contra: 1 (PSOE)
Abstenciones: 0

SE ACUERDA:

Aprobar la MOCION presentada por EAJ-PNV, sobre la DIRECTIVA DE RETORNO CONTRA LA INMIGRACION, transcrita literalmente en la parte expositiva del presente acuerdo.

II. puntua; II. Mozioa: PNV-tik irakurri nahi duenak,

ZUZENBIDEZKO
ESTATUAREN DEFENTSAN,
TORTURA INOIZ EZ

Zumaiako Udalak:

EN DEFENSA DEL ESTADO
DE DERECHO, NUNCA LA
TORTURA

El Ayuntamiento de Zumaia:

1. Berriz ere berresten du lehentasunezko konpromezua duela pertsona guzfiertzako Giza-Eskubide guztien defentsan eta, bereziki, Bizitzeko eta osotasun fisikoaren eskubideen defentsan. Halaber, adierazten du Estatuaren defentsa, beti ere, legediaren eta Giza-Eskubideen errespetu hertsia errespetatu behar dela. Hori dela eta, Gobernu espainiarrari eskatzen dio tratu txarren salaketa guztiak ikertu eta argi ditzala, egon litezkeen erantzukizunak azter ditzala, eta atxilotuta edo preso dauden pertsona guztien osotasuna berma dezala. Zuzenbidezko Estatu baten erakunde zuzenaren zuzenbideen errespetu arduratsuan bakarrik eutsi daitezke; eta, kasu honetan, hain zuzen ere, atxilotutako guztiak babesten dituzten eskubide eta bermeen errespetu osoan.

1. Se ratifica, una vez más, en el compromiso prioritario con la defensa de todos los Derechos Humanos para todas las personas y, en especial, del Derecho a la Vida y a la integridad física. Considera, además, que la necesaria defensa del Estado de Derecho se debe producir siempre dentro del más estricto respeto de la legalidad y de todos los Derechos Humanos. Por este motivo, insta al Gobierno español a investigar y aclarar toda denuncia de malos tratos, a depurar las responsabilidades que pueda haber, y a garantizar la integridad de toda persona detenida o presa. La legitimidad y credibilidad de las instituciones en un Estado de Derecho democrático sólo pueden asentarse en un escrupuloso respeto a los derechos humanos y, en este caso, a los derechos y garantías que amparan a todas las personas detenidas.

2. Hain zuzen ere, Estatuko Gobernuari eskatzen dio kasu egin diezaiela, NBE eta Amnesty Internationalek giza-eskubideak bermatze eta atxilotuen inguruko protokolo bat ezartze aldera egin dituzten gomendioei. Zentzu horretan, eta Eusko Legebiltzarrean onetsitako akordioekin bat, hainbat neurri ezar ditzala eskatzen dio Gobernu espainiarrari; esaterako, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzea, inkomunikazioa uzten duten artikulua ezabatzea eta atxilotuen etengabeko grabaketa ziurtatzea. Azkenik, Estatuko Gobernuari eskatzen dio, tortura edo tratu txarren salaketa bat dagoen bakoitzean, ezer baino lehen barne-ikerketak egin dezala eta gertatutakoa argitzeko gardentasuna bermatu dezala, eta, ondoren, zuzenbideko estatu bermatzaile bati dagokion mailako erantzuna eman dezala, zigorgabetasuna edo inpunitatea indartzen duten mezuak ekidinez. Halaber, Udal honek Estatuko Gobernuari exigitzen dio bertan behera utzi dezala tortura-delituengatik kondenatutako pertsonak sistematikoki indultatzeko jokaera.

3. Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak bertan behera utzi eta artxiba ditzala.

2. En concreto, insta al Gobierno del Estado a atender a las recomendaciones de la ONU y de Amnistía Internacional para garantizar los derechos humanos y a establecer un protocolo sobre detenciones. En este sentido, y en sintonía con los acuerdos adoptados por el Parlamento Vasco, insta al Gobierno español a adoptar medidas como la modificación de la Ley de Enjuiciamiento Criminal en el sentido propuesto por dicho Parlamento, eliminando los artículos que permiten la incomunicación y asegurando la grabación ininterrumpida de los detenidos. Finalmente, insta al Gobierno del Estado a que, en cuanto se produzca una denuncia de tortura o malos tratos, como primera medida realice una investigación interna y garantice la transparencia para aclarar los hechos, y a continuación dé una respuesta acorde con un estado de derecho garantista, evitando mensajes que potencien la impunidad. E, igualmente, este ayuntamiento exige al Gobierno central el cese de la práctica de concesión sistemática de indultos a las personas condenadas por delitos de tortura.

3. Pide a la Audiencia Nacional la suspensión y archivo de todos los procedimientos judiciales donde se haya aplicado tortura e incomunicación a los detenidos.

4. Giza-eskubideen urraketan aurrean beste batzuetan eginiko adierazpenekin koherentea izanik, praktika hauek pairatu dituztenei elkartasuna adierazi eta zentzu honetan behar den laguntza osoa eskaintzen die.

5. Udal honek, berriz ere, agerian uzten du pertsona guztien eskubide eta askatasunen aldeko konpromezu sendoa; gure herrian indarkeriazko ekintza eta azalpen guztiak berehala eta betirako desagertu daitezela exigitzen du; eta, gaur ere, elkarrizketa eta soilik bakezaleak, politikoak eta demokratikoak diren bideak aldarrikatzen ditu, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa denon artean konpondu ahal izateko. Eta, gure udalerriko biztanle gehienek iritziarekin batera, berretsi nahi du, euskal hiritarrak bakean eta askatasunean bizi daitezen lan egiteko konpromezua.

4. En coherencia con pronunciamientos anteriores ante violaciones de derechos humanos, expresa su solidaridad a las personas afectadas por estas prácticas, y cuanto acompañamiento en este sentido sea necesario.

5. Este ayuntamiento manifiesta una vez más su firme compromiso con los derechos y libertades de todas las personas; exige la inmediata y definitiva desaparición de todas las acciones y manifestaciones de violencia en nuestro País; y reivindica una vez más el diálogo y las vías exclusivamente pacíficas, políticas y democráticas, como única forma de resolver entre todas y todos el conflicto político que vive nuestro Pueblo. Y, recogiendo el sentir mayoritario de los vecinos y vecinas de nuestro municipio, reafirma su compromiso de seguir trabajando para que la ciudadanía vasca pueda vivir en paz y en libertad.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrikasko, Unai.

Gu mozio honen aurrean esan, erabat ados gaudela eta beraz alde botatuko degula, beste batek, beste norbaitek zerbait esatekorik baldin badauka, PSOE-K,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: Bueno, en este caso no vamos a votar en contra, pero bueno nos vamos a abstener, porque por ejemplo el punto quinto es extraordinario y ojalá fuera una realidad en Euskadi y en todos los sitios lo que pasa que el punto dos pues contiene ciertas.... no hay regularidades o imposibilidades en cuanto a que una parte, el propio gobierno del estado lo está atendiendo y lo está ejecutando y otra a que en el tema tres, “pedir a la Audiencia Nacional la suspensión y archivo de

todos los procedimientos judiciales” creo que en principio sin aprobarlas para nada el tema de la tortura sino todo lo contrario están ajustadas a la Ley que podremos estar de acuerdo o nó la que existe en este momento de enjuiciamiento y por lo tanto no se podría tratar como ilegalidad, sí como un hecho que no debe ocurrir bajo ningún concepto, la tortura en ningún sentido pero no como una ilegalidad, por lo tanto, nos vamos a abstener,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ezker Batua-Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA: ANV,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, guk mozio honen aurrean, bai zerbait esan nahiko genuke, oraingoan ere, ba.bueno.. hitzak batzuk dira, baino hitzak eta ekintzen arteko sintonia falta bat ikusten degu PNV-ren aldetikan, alde batetik hemen esaten diren gauza batzuk edo praktikara eramaten ez direlako.

Mozio honetan esaten diren gauza batzuk ertzaintzaren komisaldegian egingo balira poztuko ginatke eta hori izango litzateke moziorik onena, ertzaintzaren komisaldegietan inkomunikazioa gehiago ez aplikatzea, inoiz, hori izango litzateke moziorik onena, lehendabiziko puntu bezala eta bigarrenko puntu bezala bertan jartzen duen esaldi bat edo irakurriko det: “Zuzenbidezko Estatu baten erakundeen zilegitasuna eta sinesgarritasuna, giza-eskubideen errespetu arduratsuan bakarrik eutsi daitezke; eta kasu honetan, hain zuzen ere, atxilotutako guztiak babesten dituzten eskubide eta bermeen errespetu osoan” eskubide bat eta berme bat da errugabetasun printzipioa eta alde batetik errugabetasun printzipioaren defentsa egiten ikusten degu gaur hemen, EAJ-PNV-k baino beste alde batetik Baltza Jauna EAJ-PNV-ko Politikaria ikusten degu nola komunikabideetan esaten duen poztu egiten dela azkenengo atxiloketa hauek ekidin egin dituztelako, ez dakit, zer ekintza eta ez dakit zer atentatu, torturatuak izan aurretik, inkomunikatuta daudelako eta torturatuak izango direlako, torturatuak izan aurretik, epaituak izan aurretik Baltza Jaunak, jada, kondenatu egin ditu, alde batetik giza-eskubide guztiak defenditu behar ditugula esaten dugu mozioetan, baino gero gure iharduera politikoan, egunerokotasunean guztiz kontrako bidea hartzen dugu, neri gustatuko litzaidake horrelako poztasunik ez agertzea, epaile batek berme guztiekin epaiketa bat edo epai bat mahai gainean jartzen ez duen bitartean, zeren errugabetasun printzipioa ere eskubide bat

da eta eskubide hori ere errespetatu behar da, bestela, gure aldeko bozka nola ez tortura inoiz ez, ez hemen eta ez munduan,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zerbait esateko, PNV-k

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Andoni Etxaniz-en ahotik espero genitun hitzak edo somatu ditugu, pozten gera dena den gure mozioarekin bat datorrelako, hau Eusko Alderdi Jeltzaileak aurkezten duen mozioa da, beraz Eusko Alderdi Jeltzaileak sinisten dituen printzipioak adierazten ditu; sintonia falta hitza eta ekintzen artean... guk, akaso, -eta ez det esaten oraintxe aipatu dezun kontu horren inguruan izan daitekeenik, baina bueno, denok gera gizaki-, izan ditzakegu baina, desde luego, sintonia falta hori, Andoni, ez det uste guk beste iñork baino gehiago egiten degun pekatua denik. Eta Ertzaintza aipatu dezu baita, eta bueno, nola nahiko erraza zen aurreikustea aipatuko zenuela eta... internet saltzeatzen ibili gera eta Amnistia Internationalak 2007an egindako txosten bat, “Sal en la herida” izeneko bat ikusi degu eta hemen zenbait aipamen egiten ditu. Luzea da txostena, aipamen motz batzuk irakurri nahiko nituzke, (Erderaz bakarrik daukagu)

Amnistía Internacional acoge con satisfacción las medidas adoptadas por la policía autonómica del País Vasco, la Ertzaintza, que, entre otras cosas, ha introducido mecanismos de control de calidad durante la detención (consistentes en detallados procedimientos que se vigilan atentamente) y grabación con cámaras de vídeo de amplias zonas de las comisarías de policía.

Jarrantzen du, La Ertzaintza tiene también un sistema regulador de control de calidad que ofrece a las personas detenidas la oportunidad de cumplimentar un cuestionario confidencial sobre su experiencia bajo custodia,

Jarrantzen du, Por este motivo los organismos de derechos humanos, Amnistía Internacional y otras ONG llevan muchos años recomendando la grabación sistemática y completa en vídeo y audio de todas las zonas de las comisarías de policía donde puedan estar presentes personas detenidas.

Estas medidas no sólo protegerían a las personas detenidas contra los malos tratos sino que además brindarían protección a los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley frente a denuncias falsas. Este impacto fue señalado por representantes policiales y de asuntos internos de la Ertzaintza entrevistados por Amnistía Internacional, que afirmaron que el número de acusaciones de malos tratos ha registrado una disminución importante desde que se introdujo la vigilancia a través de cámaras de

vídeo en las zonas de detención y en las salas de interrogatorio de sus comisarías.

Bestalde joan den ekainean Irene Khan izeneko andre bat ibili zen hemendik, Secretaria General de Amnistia Internacional, eta honek esan zuen: “Que valoraba las medias adoptadas por el Gobierno Vasco para prevenir casos de malos tratos o torturas en las comisarías de la Policía vasca” “Khan reclamó a las administraciones que no tengan miedo de colocar cámaras en las comisarías, tal y como ha hecho la Ertzaintza, porque así será posible demostrar cuáles son las denuncias falsas que siguen «consignas de ETA». En su reunión con el lehendakari, la secretaria general de Amnistía Internacional realizó un llamamiento al Gobierno Vasco para que la Ertzaintza no aplique la detención «en régimen de incomunicación». Khan valoró el hecho de que la Policía vasca no haya tenido la necesidad de aplicar este mecanismo a los detenidos en los dos últimos años y confió en que sea un mensaje «positivo» para el resto del Estado”

Nola ez dudan uste Amnistia International eta Irene Khan Eusko Alderdi Jeltzaile-kide direnik, -behintzat ez ditut inolako asanbladetan ikusi-, eta txostena eta oraintxe irakurri dudan parrafoa ere ez diren gure alderdiko inolako organikotik irten, alderantziz gehiegi maite ez gaituzten zenbait komunikabideetatik, bueno... : hor gera dadila,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nahiz eta gure hitzak eta ez Andoni Etxanizen hitzak, baizik gure hitzak aurreikusi dituzuen eta erantzuna ere prestatu dezuten ez det uste erantzuna, erantzun da geratu direnik gure hitzak.

Aldi batetik esaten dezute que se grabarán amplias zonas, hori, hori aitortzen zaizuela edo hori egoki baloratua izan dela esaten da Amnistiaren Internationalaren aldetik, amplias zonas,

Mozioan berriz, amplias zonas ez da esaten, etengabeko grabaketak esaten da eta etengabeko grabaketak eta amplias zonas ez da gauza berbera, orduan motz, hanka motz, hor, eskatzen dezutenarekin eta egiten dezutenarekin artean eta inkomunikazioaren erabilpena ere bertan behera uztera eskatzen dezute, baino horri uko ere ez diozute egin, hori izango litzateke mozio onena komisaldegitan, ertzaintzaren komisaldegietan amplias zonas ez, etengabeko grabaketa eta inkomunikazioari uko egin

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bueno, “amplias zonas” da.. “lugar”, adierazten digu tokia; eta “etengabeko grabaketa” berriz

“denbora”. Ez dakit ba denbora eta tokia bi kontzeptu berdintsu diren..., eta beste aldetik, oraintxe irakurri dizut azkenengo bi urtetan gutxienez inkomunikazioa ez dela aplikatu Diario Vascok esan da, edo “Irene Khan-ek”

ALKATE-LEHENDAKARIA: Besterik gabe, mozio honen bozketarekin, bozketa ekingo diogu, PNV-k

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Aldeko botoa, noski

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa, PSOE?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: Abstención

ALKATE-LEHENDAKARIA: Abstentzioa, Ezker Batua Aralar? Aldeko botoa, ANV-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Aldeko botoa

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alde eta Eusko Alkartasunak, ere Aldeko botoa.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (4 PNV; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (PSOE)

ERABAKI DA:

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 (4 PNV; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (PSOE)

SE ACUERDA:

EAJ-PNV-k aurkeztutako ZUZENBIDEZKO ESTATUAREN DEFENTSAN, TORTURA, INOIZ EZ buruzko MOZIOA onartzea, hitzez hitz azalpenen zatian jaso dena.

Aprobar la MOCION presentada por EAJ-PNV, EN DEFENSA DEL ESTADO DE DERECHO, NUNCA LA TORTURA, transcrita literalmente en la parte expositiva del presente acuerdo.

Eskari galderetara pasa aurretik, presazko izaeraz nahiko nuke gai bat aipatu, dagoeneko batzordetan ogasuneko batzordean aipatu den gai bat eta da kreditu aldaketa bat, hain zuzen ere dagoeneko esplikazio guztiak eman da daude, eta da artxiboko gestioa eramateko, bere garaian aurekontuak onartu zirenean akats bat egon zen eta inbertsioetan jarri zen, hori da igual batzordean aipatu genuena, ostegunean, oker ez baldin banago, gertatzen dena da prozedurazko akats bat izan genuela eta gai ordenean diktamen bezala ez genuela jarri, diktaminatu beharra zegoen eta geratu ginen ostegun horretan, astelehenean egingo genuela beste ogasuneko batzorde bat.

Gertatzen dena da bertako idazkariari ez zion astirik eman akta egiteko eta kuestioa da ez genuela egin, eta orduan nola gai oso teknikoa den eta dagoeneko batzordetik pasata dauden eta nola enpresa hori ERAITEN-ekoa ari den deika faktura erreklamatzeko, nik bai ba... oso gai teknikoa da, batzordean ikusita dago eta izaeraz baldin bada ere plenotik pasa behar duenez, nahiko nuke hori dagoeneko oso akats prozedimentala izan zelako eta gai guztiak esplikatuta daudelako, ba.. bueno hemendikan pasa.

Ez dakit norbaitek zeozer esateko daukan edo besterik gabe, aurrena bi botazio egin behar dira edo aurrena presazko izaeraz onartuaz eta gero?

IDAZKARIA: Lehenago presazko izaera, gehiengo absolutoarekin,

ALKATE-LEHENDAKARIA: PNV-k,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez dakit..., kontua da... bigarrenengo aldia da hau gertatzen zaiguna, ezta? Eta presazko izaera izango du... eta desde luego ez du ematen denik gairik larriegia... zenbateko kopurua izango da?,

ALKATE-LEHENDAKARIA: 36.000 €

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Hau badakit Hazienda batzordean komentatu zela, Manu bertan egon zelako eta komentatu zigulako. Pentsatu genuen astelehenerako geratuko zinatela diktamena bozkatzeko, ez zen astelehenerako bilerarik izan, kontua da, ohiko bihurtuko ote den, diktamina pasa gabeko gaiak plenora ekarri eta presazko izaera hori, etiketa hori jarriaz, hau egitea?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ez da gure intentzioa, inondik inora ohizko bihurtzerik, iruditzen zaigu fondoeko gaia hondoan dagoena diskutitua izan dela, dagoeneko eztabaidatua izan dela, akats prozedimental bat izan zen, ba.. guk gai ordenean diktamen hitza ez genuela jarri, besterik ez zen izan eta hondoan dagokionez desde luego, dena eztabaidatua, berri eman da eta abar... izan zen, egia da esan genuela astelehenean egingo genuela eta lehenago aipatu dudako historio horregatik, astelehenean ezin izan genuen egin eta nola azken finean dena aipatuta dagoen ez daukan bakarrikan modifikazio atal batetik bestera inbertsioetatik kapitulo gastu orokorren kapituloa aldatzea nola bakarrikan den, ez da besterik kantitate berdina mantenduaz ba.. bueno, hori da honera ekartzen dena, besterik gabe,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bale, guk urgentzia bozkatzeko degu, oraingo honetan, eta espero degu esan dezun bezala ez dela ohiko bihurtuko, baina berriz ere nahi degu esan da, zeurok edo behintzat gobernu kide zaretenon artean batzuk, izan zinatela bere garaian ba.. horrelako kontuak salatu zituzuenak eta erreibindikazio gogorrak egin zenituztenak eta diktamenak ere aipatzen zenituztenak eta gutxienez ere ba.. berriz ere nahiko genduke hori gera dadila aktan jasota eta kontraesan bat ikusten dugula, ez?... Beste behin ere,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Esandako horrek bere ñabardurak dauzka, ze.. izan ere historikoki guk ez genuen diktamina erreklamatzeko, erreklamatzeko genuen beste gauza bat, baina bueno, ez naiz detailetan sartuko, Emiliano

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Barkatu, adibidez... jakitea 36.000€ horiek zertan erabili diren? Pues, ez dakigu

ALKATE-LEHENDAKARIA: Nola, zertan erabili diren? Hori da, esplikazioa eman da dago ogasuneko batzordean.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA: 36.000€ ez dira erabili oraindik, aurreko osteguneko Hazienda batzordean kreditu aldaketa hori proposatu genuen, gertatzen dena da bi kreditu aldaketa zeudela, bat plenora ekartzeko eta bestea ez, Bestea alkateak erabakitzen zuena eta ahaztu egin zitzaigun batean diktamena jartzea, hori da, hain zuzen ere beste kreditu aldaketan inporte gehiago zeuden eta ez da beharrezkoa honera ekartzea, ba.. legeak horrela esaten duelako eta hau bueno kalifikatuko nuke txorrada bat dela eta plenora ekarri behar da. Da inbertsioetatikan bigarrenko kapitulora eramatea 36.000€ horiek.

Eraiten enpresak, hori egiten dagoenak, ordainketa erreklamatzeko du eta orduan, hau derrigorrezkoa da egitea ordainketa hori egin ahal izateko.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai..., hori esan nahi nuen, ez ez dakigula inbertsioko kapitulotikan gastu korrientera pasatu behar dela eta zein den kopurua, -esan dezute-, baizik eta zein enpresak zein lan egiteagatikan kobratu nahi duen, ze lana egina dago, enkargatu zitzaiolako -hori pentsatzen det...- eta akaso zuk esan dezunean “beste kontu batzuegatik” protesta egiten zenutela, ba.. adibide bezala jartzen dudana da.

Protesta egin zitekeen orduan ez diktamena ez egoteagatikan, baizik ez daukagulako arrastorik ere “Eraiten” zein den eta zer egiten ari den 36.000€ kobratu ahal izateko.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori da baino esplikazio guzti hori Ogasuneko batzordean, guk eman da daukagu, hori da diferentzia, klaro,

MANUEL ZUBIA ARTABE JNA: Bai, baino ze partidetan eta ze komisiotan leen azaldu zen udalak ordaintzeko, bakarrik usten det pixka bat gai hori ez zela gehiago argitaratu beste komisiotan, eta azken batean behar izango zela bai, hori garbia den, ez det behinere entzun hori, ze gastuetan edo ze arlotan erabiliko zen kantidaden hori

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori da, kapitulo bat bere garaian aurreko urteetatik datorren programa bat da eta batez ere kulturako, ez dakit,

departamentuak eramaten zuen bere garaian, baina ez da aurrenengo urtea hori egiten dena, urte batzuk datoz gauza hori egiten, pentsatzen det jakingo dezuela zuek gobernuan zeundetelako, esan nahi det gauza berdina da kapitulo desberdinetan egin da, urte desberdinetan egin da, ez da besterik.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Nik bakarrik gauza bat, ni haziendari dagokionez hitzegiten ari naiz, baina bueno, hor kopuru batzuk sartu ziren aurrekontuetan ba.. lan hori egiteko enpresa honek, Eraitenek, eta usten det lehengoko legealditik datorrela, enpresa horrek, ez dakit seguru, hortxe, hortxe, baina bueno, ez dakit, lehendik edo oraindikan bueno aurrekontuetan sartu genuen partida hori erruz, seigarren kapituloan, neure erruaz, argi eta garbi eta bigarren kapitulokoa da eta orduan behar duguna da kreditu aldaketa hori, eta ez daukat problemarik esateko zeinen errua izan den, o sea que, eta gero beste komisio baten ikusi den edo ez, hori hala den, ez dakit,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Argi geratu dadila, ari gera artxibo historikoaz edo artxibo administratiboko lanetaz?. Lehenago ere egiten ziren artxibo-lanak eta egia da ez zirela ez lehiaketa bitartez ere egiten baina inoiz ez genituen gaintitu 12.000€tako lanak, orain ari gera 36.000€-taz esaten ari zaretenez.

“Eraiten” enpresa lehenago ere jardun duela lanean udalarentzat...,” ez da egia, lan bakarra da -oraintxe akordatzen naizena egin duela- eta da, izan zen udaletxe honen inauguraziorako hor goian jarri zen erakusketaren diseinua, eta ez besterik, eta orduan, nik esaten dudana da hori: azken finean nola enkargatzen diren lan horiek eta zertan izaten diren, ez ea partida lekuz aldatu behar den edo ez.

Planteatzen dezuten kontuari erantzunez, ametitzen degu, gaurkoz, eta asunto honen inguruan, urgentzia, beste behin ere. Ikusiko degu ea zenbat aldiz urgentziazko gaiak tratatu behar ditugun.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: Yo puedo entender la urgencia, puesto que hasta septiembre ya no se aprobaría, pero creo que en principio desde la comisión que estamos hablando, luego iba haber otra el lunes, que no se informó nada si sí, si no, sino todo lo contrario, los teléfonos funcionan, se podría haber llegado ya a este pleno con un conocimiento de que se podía dar ese tema, para que se hubiera buscado

una posibilidad de un consenso sin necesidad de discutir dado el tema de urgencia del tiempo que decimos que hasta ya finales de septiembre no se podría aprobar, creo que eso se puede hacer sin ningún tipo sin atener a que ha habido malicia, ni no malicia que no es el caso, pero yo creo que eso se ha podido corregir y se debe de corregir para que no tengamos que llegar a que a esas alturas, porque no estamos hablando de cualquier cantidad, estamos hablando de seis millones de las antiguas ptas., que no digo que esten mal gastados, ni que no haya que gastarlos, ni que deje de gastarlos, pero que sí da opción a que si no se pudo hacer el lunes una comisión de hacienda, donde se hubiera hecho el expediente, como ese expediente la Secretaria Lioba lo tendrá...

IDAZKARIA: Sí, yo dije que el expediente se explicó en la Comisión, eso tengo que dejarlo claro.

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: Pues ahora con una mínima explicación que hubiera sido de telefónica, antes del pleno, pues se hubiera corregido este problema, no es otra cosa, yo lo que quizá posiblemente la que menos culpa tenga sea ella, porque con... antes del expediente su cometido está cumplido,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRA JNA.: Yo solo una cosa Emiliano, esta Comisión iba a ser el martes de la semana pasada, bueno se tuvo que suspender, Lioba mandó un correo electrónico a todos, luego me dí cuenta que era.... y estuve llamando por teléfono, le pedí a Andoni el teléfono y te llamé y te dije, hoy no hay comisión y ya era tarde, pero va a ser el jueves, no?, te llamé yo, te llamé yo, del teléfono de Andoni y va a ser el jueves la Comisión y luego el jueves se explicó ese punto aparte de otros, la cuenta general y otros, pero bueno el jueves ese, y yo te expliqué que iba a ser el jueves pero lo que pasa se nos olvidó poner dictamen en el punto ése, en concreto, y a M. Eugenia también le llamé que iba a ser el jueves que el martes no iba a ser posible, te dejé en el contestador y creo que también a Xabier, también le dije,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: No me refería a lo del jueves, porque es cierto que me llamaste y te dije que no podía asistir por otra serie de cosas y lo del jueves sí, yo me refería más a lo que se habló del lunes para corregir ese problema y que luego no se hizo por eso te digo que se hubiera podido comunicar tranquilamente para haber llegado aquí, ya, con ello hecho, no me refería a lo del jueves porque el jueves todo eso que ha

ocurrido es cierto, lo que dices y yo te dije también que no podía asistir ya ese jueves, no lo tenía ni previsto, pero es que no podía además, porque tenía otras cosas,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Besterik gabe aurrena izaerazko, presazko izaerazko botazioetara pasako gera, PNV-k

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Esan det, baietz,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa, PSOE-k

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa, Ezker-Batua Aralarrek

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldeko botoa, ANV-k

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aldekoa eta EA-k ere Aldekoa

ERABAKI ZATIA
Aho batez

PARTE RESOLUTIVA
Por unanimidad,

ERABAKI DA:
Kreditu aldaketa presazko
izaeraz aitorzea

SE ACUERDA:
Declarar con caracter de
urgencia la modificación de
créditos

Eta orain bozkatzera pasako gera, gaia bera kapitulo batetik bestearen aldaketa, PNV-k

